

Eusko Jaurlaritzaren kultura-sailburua,  
Nafarroako Gobernuaren ordezkaria,  
Agintariak,  
Arratzuko alkatea eta zinegotziak,  
Urbaibaiko mankomunitatearen alkateak eta zinegotziak,  
Joseba Lakarraren etxekoak eta senitartekoak,  
euskaltzainak,  
bestelako elkarte, erakunde eta abarrekoak,  
arratzuarrak,  
jaun-andreak,

Egun on guztioi, Arratzuko herri honetatik. Gaur hemen dago Euskaltzaindia, Joseba Lakarra herriko semearen sarrera-hitzaldia entzuteko, eta, bera euskaltzain oso izendatze aldera, ekitaldi honetan partaide izateko.

Nor Joseba Lakarra, zein Euskaltzaindia? Bata eta bestea aski ezagunak direlakoan, azpimarra ditzadan oraingoan Josebaren dohainak, jakituria, prestutasuna, eta ikerketarako sena eta grina.

Baditu horretarako kideak, egun gurekin daudenak. Kideak kide, alabaina, berak jakin du euskararen historian antzinako euskarak dituen zokondorik ilunenak ere argitzen hastea.

Omen egiten dio gaur Euskaltzaindiak, euskararen akademiak, kide berriari. Horrekin batera ere, ezin garbiago adierazten dio berarenganako ustea, esparru askotan euskararekiko erakutsi duen zaletasuna akademiaren lanetara ere ekar dezan.

Fruituetatik ageri da arbola; obretatik, gizona. Jakin badaki Euskaltzaindiak obretan sendo eta ugari dela Joseba Lakarra,

eta, egile ez ezik, eragile ere badela. Halakoak nahi ditu, halakoak behar ditu gure akademiak.

Arratzuko eliza honetan fiel-harria dago atarian. Hor batu eta erabaki dituzte arratzuarrek euren aferak mendeen mendeetan. Horixe da, izan ere, joanaren eta gaurkoaren lekuko, geroa ere ikusiko duela.

Fiel-harri horrek ikusiko zuen, lehenago ere, arratzuarrek herriko gobernurako egiten zuten zina. Gauza bera egingo da gaur hemen, Joseba Lakarra arratzuarraren zina eta konpromisoa jasoko ditugulako, euskararen akademian kide eta lankide izateko.

Zorionak, Josebaren etxekoei. Zorionak, Arratzuko herriari. Etxekoak izaten dira, gure gorabehera guztien gainetik, ondoen eta sakonen ezagutzen gaituztenak. Eurek jakingo dute, inork baino ziurrago, behinola Arratzun jaio eta egun euskaltzain oso egiten dugunaren berri eta albiste. Hitz gutxitan esateko, haren biografia osoa. Biografia horretan erakutsitakoa izan da, hain zuzen ere, Joseba Lakarra euskararen akademiara ekarri duena.

Zorionak, beraz, eta, bide batez, eskerrik asko elizari, gaur etxe eder hau erabiltzeko baimena emateagatik, eta, orobat, hau antolatzen ibili diren guztiei.

Arratzun, 2009ko maiatzaren 30ean

Andres Urrutia